

UJUÉ¹



BERE KONDAIRA LABURCHO BAT*

I.

Inguruak ta sarrera

Iruña-tik¹ Salduba-rako² bide ori Erri-berri³ barrena egin due-nak, ikusiko zuela nago, Tafalla-tik asi ta Marzilla irauli bitarteko edozein lekutatik, ezkererontz begiratzeko arretarik izan badu beintzat, an. Sancho-Abarka⁴ edo ez dakit nik nondik asi ta iparre-rontz datorren mendi-bizkar gora-bera aundirik igertzen etzayon aren gallurrean alako, malkar, biribil-nai gaztelu-antzeko ta mendi-amatik gora atera nai lukien arkaitz-kume koskortua bezelako gauz bat. Begiz jo orduko, deritzat, esain zuela: ¡Orisen da gauza! ¿Zer ote da ori? ¡¡Gure Jaungoikoaren lanak!!

Arrazoi aundiya du onla mintza danak, zergatik ezik, *arritzekoa da Jauna goi-lanetan*,⁵ ta egiteko gañeko au onen pikaña Jaunarena da:⁶ baña ez ikaratu, oraindik ez da ta dana.... agiri.

Jakin biar du eze begiratzalleak, ori dala inguru oitako lepo, irau-leku,⁷ amil-tegi,⁸ leiz, ibar, soro, zelai ta mendi-nab-erri⁹ oitako guztietako etsai-etsayaren¹⁰ egon tokiya: ori dala, Napar- seme bakoitzaren gibel-ondoan gaztel-paretei ere eragiten dien bortiztasu-nezko biotza ipintzen dienaren eche-tzarra; ori dala; ori dala inper-nu-su guzti guztiyak bereganatu, kemen-gabe utzi, lurpean sartu

(1) Monografía premiada con un makilla con incrustaciones de plata en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892.

(*) Véanse las notas al final de este artículo.

egiñ, itzali ta ezer-ezten dituen chimist-orratza;¹¹ ori, bere kakoetatik milla esku-burni ta arma zintzillik dauzkiyen Dabid-en eche-garai edo torrea;¹² ori, Ama Birjiñaren ait-zati edo bere-puska;¹³ ori, usa-tegiya: ori, orise Ujué, au da Usua.¹⁴

Tafalla-tik Gallipienzo-ra dijuan bidea, bide ederra, kamio-erreala San Martin de Unx¹⁵ irago ta bereala, Lerga basoa baño lencheago, eskoi aldetik dagoen zubi batera iristean laja biar da, emendik asi ta Ama chit Santak aukeratu zuen mendi-buruko tontor artara oraindik urte guchiz onontzik, Gurrea, Olite-sume jaunaren alegiñez egin den kamio erreal berri ederrari ekiteko.

Tafallatik Ujué-ra lau legua oparuak egoiñ dira; Untz, bide-erdi iragosean dago.

Ujué-ko Eleiz-torretik, or, ordu bete ordu ta erdiko bidean bezela, sort-eyuerdi¹⁶ alderontz begiratu ta agiri da, mendigañaren zabal-unecho batian, Murillo-bidearen ertz egiten duela, nola nai ere azi aziya ez dan tellape, inguru aitako artzai-jende ta mendi-gizonak entzun dezaten, Ujué-tik askotan aurre-gabaz¹⁷ juan ta igande-jaiero meza santua ematen duen Elizacho, *Nuestra Señora de la Blanca* deritzayona. Ta kondairak diote, Eliz au zala leku onetan zortzigarren eunki-aldera arte izan zan izen bereko erriyaren anima-gauz-to-ki edo, orain esango genukien bezela Parrokiya.

II.

Lenengoa ez dana, bestea aurretik duelako.

Esan oida, Ama chit santak gizonaganako begiramentu, ardura ta naitasun aundia dituala, ta egiya ezin ukatua. Orregatik ere baita ez da aitorkizun batere ergelagua, eskatzendiozkata zenbaitetan zenbaitetan gizonari maitesunik dion, ta aundiya ala chikiya ezagutzeko aztarna ta rieur pide ederrak. Esango zait, ori bera dala siñale, asko eskatzea, zeñen ondasun-dun egin nai duen aditzera emateko; nairbadu bai, ta gañera, naiz egiteko eskatzen duen gauz-pean bertan girizatua proga-pide ta saritzarrik aundiyena jarri, ez-jakintasun ori bera alde batera lajarik, diot, asko merezi duen gauza dala, iñolaz ere, ta guztiz sarigarriya, eskaerari bertatik arpegi ematea, eskuak sarri ipintzea, azkar egitea.

Ujué-rontz begiyak jartzen dituenak oik guztiyak-kontuan iduki biar ditu, batez ere luma-lanetan.

Guazen, bada: egin-kayean¹⁸ sartzera, ta lan-egiñez¹⁹ ikustera

bi alderdi oyeken leya santu, espa alkar-sugarri, nai-bero, lan-era-gille, on jario ta garaigarriya.

Denborak jua ta denborak etorri, urbildu zitzayon orain Naparrua deritzogun, Espain-pusketa²⁰ oneri ere bere eunkiz-lendikako ait-era utzirik, izan-modu berri ta berez-ki²¹ bat egiteko ordu ta muga.

Jaungoiko dana-dakusanaren²² begiramentu zorrotzak ez-ariyan ez-ariyan jarri zituen gauza guztiyak esku erara ta egoki.

Igorri ziran Iberia-ra arako Sem-odoletitako giz-illun aik, mairuak, pagotzarrak mendiyetan usu, berde, liran ta galantak bezela aundi, azkar, beltzak eta asko, garaitzen zituztela, oso gero, gure asaba ziranak, illik onetarako, arront alere Betikako ibai oroimengarrizko aren inguruan, arako 711^{eneko} Uztaren 31^{en} odol-egun artan arpegi ematen arkitzen zuten guztiya.

Emen artu zuten indarrarekin, ta ito bearrian, isira aundiagoa iriki zien kristau-odolaren ondoren, aurrera ta aurrera, eragiñ ziyen mairuak beren asmo garaipengoseari, ta egun agitz guchiren barren, egiñ ziran Errodrigo-zanaren peko-ko lur-erri guzien jaun ta jabe. ¡Ze izain ote zan Tarik eziñ-asearen beso indartsuari beroz bero artan gure mendi burkallak ere irabiatzea gogoak eman izan bazion!

Oitan, ezer ez da esan izan biar zuen, begiyen ichi-iriki batean ainbeste lurren jabe egin zanak, bere jabarietatik itsasoaren arteko urlezotzat²³ jo zuan mendi-zerrenda erpiñ au ikusi zuenean. ¿Oitara zertara jua? ¿or zer daguelako?

¿Etzaitu beraz ardura? Ainbat gaistoago, Indi-semea; gizarajo orrenzat, ainbat gaistoago.

Zortzigarren urtearen buruan, 719^{en} kondaira-gilleak diotenez mairuak, izulaborriya alde guztietara ereñiyaz egin zuten sarrera kaska-iltza gogorreko artatik itzuli ziran pizarrak, pizkortu ziran ta Asturias-etako arkaitz-arte artan, Pelayo ain goratu zuen aurrengaraitz ta Espaiñ-aste²⁴ ark leku izan zuen.

Kobadonga-ko asiera garaigarriyak, oñaztarrak arratsean odei-beltzak bezela, dis-das-eko²⁵ batean argitu zituen Espain-iparraren ertz batetik bestera gal-miñez²⁶ goibeldu ta zeuden alien biotzak: su zarrada²⁷ aren dardara mugi-eragillearekin, lur-atzen-etik²⁸ asi ta Orreaga²⁹ arte zeuden bizi-dun guztiyak, likurt-ariz³⁰ iragoak haitzeuden bezela aizkatu ziran, denak pizkortu, bizi-berritu denak: itz batean, zeru-chinpart³¹ ta Espain-grña³² ura menditar-jabe egin zan; menditarrak Espaiñyaren ta onekin, galdu zutenaren egin zitezen.

Goritu ziran bada, aitzetako narru-zimeldu aik; irakiñ zuen beren

zañetako odolak, ta ekin zioten alde guztietatik, Juangoiko gure Jaunak España-ko okerrak zuzendu ta zikiñak garbitzeko: sinistmena, kirats charretatik chautzeagatik; ta erri gauzak berriz zeuzkiten desberdiñkeri gorrotagarri aitatik ustuz neurri anai-gille³³ batean jartzearren, bidaldu eginzuan jende-latz ura, beraren naimen gurtgarriya ala bazan, bere iñori ukatzen etzekien laguntzarekin ostera goiz-betu, desegiñ ta egunta betiko Iberi-ertzetatik erayo zezaten.

Ainsa-ko lurretan Abdel-melek mairuari 734^{ean} eman zion astiñ-aldiyari eskerrak, Naparrak, kondairak diotenez,³⁴ aututu zuten Iñigo Arista beren burutzat.

III.

Ager-rera.

Ama-chit Santak bere kontura artu zuen España; ta Espain-darren sinistmen gezurtitu-ezaren ikuskizuna ere bai.

Mendiyetan ezkutatuetakoen biotzak ez 711^{ko} odol-isurtzak irauli zituen; ez mairu ausarten pilla ta garaipenak on-biur-ustea³⁵ uzkur-tu ziyen ta ez zortzi urteko gauz-urriyak³⁶ auldu ta amur ematera jarri erazo; ez; zeru-laguntzaz egin duten mairu-sarraskiya³⁷ ura begiyen aurrean ikusi dutenian bizkortu bai, bi alakoz egin dira ta ez-egitekoak ere egiteko jarri, danik guchiena edozeñek biartu ezkerro. Simistmen au biarrezkoa da, bada, ama guztiz seme-koyak kemendu dezan, ume-guraso-zale oik beren laguntzallearen kopet ederra garaipen-lorezko koroï pikañez apañ apañ egin ta jarri dezaten.

Alasen bada; Napar-seme aik, asi ziran bezain laister mairu-gal-ketan,³⁸ ta bidez ta unez beren erri beresa sort-ipintzen,³⁹ bereal bereala, bi-gauz⁴⁰ ori ba-tua⁴¹ izan zediñ. Denbora arras guchi jua zan, ta Ama beti garbiya agertu zan basagiza mutill ayen lagun ta beren ama emaztien alde.

Utzirik alde batera, argi garbirik berdiñ aterako ezlitzake ta, Trag-gia, Garibai ta Moret Jaunaren arteko aurreneko Napar-errege, Iñigo Arista, Garcia edo Jimenez izan zan edo ezaren gañeko itz-auiya; nola nai ere zerbait sormortzen⁴² degunada, 734^{ik} sarri izan biar zuela Ujué-ko Ama chit Santaren iduri choragarrizko onen agerpenak. Urterik ez dakigu ziur. Koran-zaleak Iberia-ratu ta aguro zala bai ta besterik ez.⁴³

Apareció aquí
la Sma. Imágen de N.^{as}.^a
Reynando en
Navarra D. Iñi-
go Arista.

Au da nik irakurri dedana, Ujué-ko Eleiz-barrean bertan. Aldare-nagusi-goyan, kopet egiten duen iru arku-buruetatik erdi-koaren zimitz-gañean⁴⁴ arkitzen dan Ama maitearen agertzea daukan pintura baten azpiyan.

Egiya da, laurkiñ⁴⁵ ori ta bere azpiko letra oik Elizaz ez ezik beste gauza geyagoren ere aldian berritzakotzat jotzen ditudala, baña, nola nai dala, autik aura dabillan Ama Birjiñaren agerpen-berriyari⁴⁶ indarra pranko eman egiten diyo orrek.

Mairu-guda asi ta laister, agertu zalako ortan bat etorri arren, Aita Moret Jesus-tarraren errege-gañeko iritziya daramalako dudarik bage, diyo Aita Areso-k bere len aipatu dan itz-aldiyan⁴⁷ «D. Iñigo »Garcia, primero de este nombre, empuñó el cetro de Navarra por »los años setecientos cincuenta y ocho. Este valiente monarca, bien »conocido por el nombre de Arista fué el primero de los reyes que »manifestó su devoción á Maria Santísima de Ujué.»

Aitengandik semietara, edo esan oi dana, belarriz-belarri⁴⁸ datarren Ujué-ko agerpenaren berriya onlatsu da.

Lenengo izendatu dan *La Blanca*-ko mutill-koskor bat ibiltzen zan ardi, auntz edo zituenak zituela, orain Ujué dan tokiko burkall ta basa-larrietan zaitzen. Ikusten zuen, ez guchitan ere dirudinez, nola, ar-zulo batera uso churi-churi batek juan-etorri asko egiten zituan: nola iñoiz edo berriz bere sarreran ere gelditzen zen: nola, itz batean.... aditzera eman nai zukien zerbait, baldiñ ta gaztechoa gai izan ezkeru egartzichoaren ibillera oi ez bezelako ura, zakontzeko. Orregatik ere, zerbait iruditu zitzayon ta..... tira ziyon arri bat, ta bestia, ta bestia; zeraman makilla ere tira ziyon, bai ta berriz ere, ta berriz; tiratzen ziyon eskuak zekarkiyon guztiya, baña, alperrik; usua berez aiñ izuti ta igeskorra izanagatik, bertan beti, mutilchoak tiratzen ziyonak jo etzezan piskaren bat ziarkatzen bazan besterik ezer egin gabe.

¡O gatzetasun zorionekoa! ¡ó jarduera, artzaintza, zere jarraileai zeruak ematen dizten atsegíñetan ezagutzen zaituguna zeñen Jaunaren gogoko eginkizuna zeran. Baña.... guazen aurrera.

Badakizu ze asi zeran, artzaichoa? Etzaitzelaz alperrik neka, aurcho maitea, zeren ez dezun ezercho ere egingo, naiz bizi guziya or-

tan irago.—¿Zergatik baño?—Zergatik diozu? Zergatik zuk baño geyago dezakien batek girizten duen egazticho ori.—Nik baño geyago nork dezakielako inor bizi ez dan basa-mortu onetan?—Nork? zu agurtzen zakitzan Jaungoikoak ta Maria chit Santa zuk mirabetza egiten diozunak.—Jaungoikoa emen dagoela, sinisten det: aitor det Ama Mariak zerutik begiratzen dirala; beraren Imajiña saskar onetan dagoenik, orregatik ere, ez aitortu egiten det, ta ez sinistu.—Ez dezula sinisten? ez dezula aitor? Atoz, igo zaitte, igo, ta ikusiko dezu.

Esan ta egiñ: etsi zuen mutillak, ezagutuzuan zerbaitek izan biar zuala, ikus-nayakirauzi zuen ta alakorik batean, ekin zion, bildurra-ekin edo gabe ezdakit, aitzean goora igotzeari..... irichi zan zulo-albora..... luzatu zuen lepoa..... burua sartu zuen..... begiratu zuen zuloaren barrena; ta... ¡ó gauza! ¡ó atsegiña! ¡ó poza! arkitu zuen.... ¿zer ordia? Billa etzebillena! an zegoenik sinisten etzuen: usocho churi churi bat onetan, aur choragarri bat eseriya magalean, ta aulki batean jariya zegon Ama beti Birjiñaren irudi eder bat.

¡Zer begiratuak mutilchoarenak, batere ezdakit eta bere arki-berriyari! ez nago au-pean bada ere ezer esan etziola! ¿Ez ote zan gero sartuko ere ausartcharra ura Irudiña zegon zulochora berera? ¡A! bayetz nago, lotsagabecho ark sartu ez ezik muñenbat ere eman-go ziola, dena damu-miñez negartitua ta esanez: Agur, nere Ama, maitea, sinisten det, barkatu.

Bere arren aurrean egonduko zan agiyan, gizarajoa, zer egin etzekiela: isillik iduki, edo aditzera eman.

Pozaren pozaz eziñ kabitua irauzi ta, eudi-jasaz bete-bete egiñetako odei bat mendiyak amildu ta datorrenean bario ariñ ta azkarrago, chimistak egiten, korri ara ta korri onera, bide-chigor aik guztiyak barrena juain zala deritzat, esateagatik bere echekoai, Apaiza Jaunari ta erri guztiyari, zer gauza arkitu zuan ipar-aldeko mendiyaren lepo-lepoko ar-zulo batean gordia.

Jakiña dago, mutil gasoaren esaerari zer arrera egingo zitzayon; ta nola batek gauz bat galde ta bestiak bestia, dana, choro bat bezela jarriko zuten. Artu dute orregatik ere egiya dalako etsipena: sinistatu diote. Apaizak, erri-buruak, zarrak, gaztiak, danak, danak. *La Blanca* guziya anchen dijoa, lerro-lerro, Ama Birjiñaren kantak kantatuaz, artzaichoak erakusten diyon lekura. Ta ikusi zutenean egiya zala gatzigatu zitzayena..... ¡Ura erriyaren alaitasunak jura artzaichoaren pozal jura Maria beti garbiyaren izen-goititze goyena!

Orain dira emen bular-kolpeak, orain zizpuruak, orain negarrak; orain dira eskariak, orain itz-emateak; orain eskaintzen du, batek

au ta besteak ori, ta orain esaten dute guziyak: emenchen egingo dizugu zure diñako egon-toki bat; gañera, zuk gurea izan nai dezun ezker, zure aldamenean bizi izatearren gure lengo erri zarra utzi ta emenchen etorriko gera ta egingo degu erri berri bat.

IV.

Ujué-ren sor-asiera.

Bi gauza ondo beresak nola baitiran agintzea ta ematea, la *Blanca-koen* artean, sarri gero agertu ziran iritzi bi: Erriko Elizara, zioten batzuek ekarri biar du ark ar-zulo artatik: ¿ara nork igo biar du? bakarrik ta arlote egon biarko luke, an; emen glori geyago emango zayo.—Ez, zioten besteak, an agertu dan ezker, an egon nai duela siñale: anchen egin biar zayo bada eliza bat: arasen gu ere bizitzera juan.—Eliza..... echeak..... erriya..... zioten aurrenekoak, larre-ligor ta maldatsu zutik iñor ezin egon dan artan ¿nork egin biar ditu? nork? auntsaren gaberdiko eztula da tal.. ¡aurkeriya, ori gogoak ematea ere...! ¡chorakeri ori autik atera!...—eziñ diteke, eziñ...

Izan ere: ara zer egitnra duen meta batek, bada, *La Blanca-al-*detik begiratu ta urasen dirudi Ujué dagoen mendiyak; borobill borobillean gorago ta estuago. Beste aldetik ez: zeren aurretik erreka-zoko oso bea bezela, atzetik Untz-erontz dijuan bizkar-gisa bat duen. Anchen dago, bada, Ujué, erri-koskor polita, Eliza tontor duela, bata bestien gañean tella-endanak eche-tellatuetan bezela eche baten atariyan bestearen zapaya, azpikoagoaren atariyan beragokoaren zapaya datorrela, mallaka mallaka egiña.

Aurreneko epelcho ayen arrazoyai, beste biotz-dun ta anima-bero aik, berengan, naiz lan gaitzetarako izan, ezagutzen zuten gogo-on ta indarrarekin eranzun zioten: Ama Birjiñaren laguntzarekin gañerakoan kontaktzen zutela.

Irabazirik bada onela; aurrenekoak amur eman zu ten, ta iritz-auziya⁴⁸ berengana zutenak, chanchetan etzebiltzala aditzera emateko eman zioten bert-bertatik, beren asmoak egikara zitzaten, mendi-urratzeari.

Lendabiziko *La Blanca-koak* egin zuten Ujué-ko lana, Irudiñ-zuloa antolatzeak izan biar izandu zuan, ta apaintzeak: estaltzen zutela Eliz-choren bat egiñik, zezatekien modurik onenean. Ontan ari ziradelarik ta au aurreratutzen zijoan bezela asiko izan biar izandu zuan erriyak egiten ta aunditua: bada Iñigo Garzia-k, Aita Jesús-tar

Moret-ek dionez⁴⁹, ikusi ta ezagaturik alderdi onetatik zenbateko arriskuan zeuden bere mendeko erriyak, ta Ujué-ko Irudiñ-santuak ere bai mairu-atzaparretan zikindu ta autsiya izateko, pentsatu zuen erri-berri batzuek egiñ ta beste zar-batzuek berriz gerra-modura portitz-jarritzea: onegatik, jaso zizkien gaztelu-berriyak ta murruz inguratu ta ipiñiere bai Aibar, Kaseda, Gallipienzo, Untz, ta oyen artian Ujué.

Ara emen, oraindik urte guchiz ononztik, iñor oñen gañean ezin zegokiela entzuten zan aldatz-erpiña⁵⁰ ura echez betea, Eleiz pikaña-rekin, gaztelu ta guzti, murrugogorrez inguratua; ara emen oraingo aldi gultiz eder egun batian.—Onuntz: gorde-lekua emen dago ta ojuz danoi esaten ziyen itsas-argiya ikusi zan Ujué.

V.

Ujué-ren berritzea

Gauz guziyak bezela Ujué-k ere goya jo zuen. Zergatik, nola ta noiz ezdakit, baña, Ujué-k lur jo biar izandu zuen. Tudela-n egon tokiya egiñ ta jarriyak egon arren Ujué-ko arkaitzik mairu-oñak etzutela egundaño ikusi diote kondairak.

Aita sermoi-gilleak esanagatik «Ama Birjiñaz oso aztu ta, Jaun-goikoa gogotik iraindu zutelako, izandu zala bere gaztelua erayoa, »bere murrak urratuak, bere echeetatik asko lurrez bat egiñak, ta »illak bere biztanlerik geyenak, goseak batzuek, ezpataz bestiak, ta »izurri gogor batekin berriz azken-kondar guziyak» onek ez du esan nai ezer; ezta irachi nai ta ere orain millaren bat urte asi ta geroztik beñere galdu bage beti egiten datorren ain sona aundiko *Gurutze-eramallien* prozesio ori. Pekatu sariyak dira geyenean gure galmen ta ikuskizun guziyak, ta gurutzearekin sorbaldak, uts-egieñez damutuaren negarra aditzera ematen du. Ez da bada aski. Gosebantzangak ez dute gaztelurik amiltzen; beste aragizkoagoko esku bat ezagutu biarda beraz Jainko-lan onetan.

¿Izan ote zan bada, ezpatak irichi ziran ezker, ta mairuak mairu bezela berriz ez, 1057^{an} Atapuerka-n⁵¹ ill zanaren anaya bere esku zeuzkan Zaragoza, Ueska ta Tudela-ko mairuak arturik Tafalla siatiu ta Napar-anayaren erriyen eizian asi zanean?

Diyo on Paskual Madoz Jaunak⁵², «Se restauró este santuario en 1150, y allí se edificó el pueblo». Baña nola azkeneko au, ala ezpaitan au da —*egiiñ-zutela*,— dirudiena da, ta Orodea jaunak dionarekin⁵³

ondo datorrena; ez egiñ, ez, baña, zar-berritu egin zutela, asi be-
ñepeñ.

Ez daukat aztua len esan dan, Elizaren barren, kopeteango, eban-
jelio aldetik dagoen arku-buruko laurkiñaren azpitiko irakurgaya.

Don Carlos II
de Navarra
erigió y do-
tó esta
Real yglesia
y dexó
su corazon
en ella.

Baña onek ere esan nai duena ez da besterik, lengoa jasotzea egin
zuela; aunditu, azi, obetu; bada On Pedro María Olive jaunak dionez
beste degitzan asko utzirik⁵⁴ «Erigir,—supone mudar, mejorar.»

Nola nai dala: naiz onek egiña izan orain ikusten degun au gu-
ziya, bere Olite-ko egon-toki edo gaztelu pikañ ura alcha zuenian,
zergatik onekiñ izan biar baitu bada, lan-kideak⁵⁵ bazela izatekoztan
ere ikuskizunen bat; neretzat lengoa urratu ta egin biar izandu zuan,
zerengatik ezik, gauz bat oso nolapaitekoa baita bada, Madoz jauna
alde batera utzirik, Napar-buruen ain nayak ziran Eliz-erriyak ain-
beste denbora dala purrakatu ta, echeta ondasunez jantziya egon
zitekiena onenbeste denboraren buru arte emen irutea⁵⁶ nai litzakien
moduan idukitzea.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

(Bukatuko da).

